Sardiniaz

Andoni Uzkeda. Iruñea

Mediterraneoko uharte honek 24090 kilometro karratu eta ia bi milioi biztanle ditu. Historian gaindi hainbat herrik, zekenkeriak jota, gaineraso du bertako ondasunak beretu nahian. K. a. VII. mendean feniziarrek sartu eta lantegiak paratu zituzten. K.a. 238. urtean erromatarrek bere egin zuten. Jatorria Baltiko aldean zuten germaniar adarreko bandaloek ere hartu zuten k.o. V. mendean. XIII. mendean Pisaren esku egon zen. 1326tik 1714. urte arte Aragoi izan zuen nagusi. XVIII. mendean Piamonteri lotu zitzaion Saboiako etxearen bidez. 1861. urtean Italiarat iragan zen. Hau guztia bi hitzetan erraiteak arriskuak lekartzake, hobe duzu irakurle jasaile horrek, historia liburuetarat jotzea.

Hizkuntzez bezainbatean sardiniera dugu bertako hizkuntza. Hizkuntza erromanikoa da eta, hizkuntzalarien ustez, latinera arruntetik gutien bereizi dena. XI. mendeaz geroztik testu ofizialak sardinieraz idazten ziren. Hiru dialekto nagusi daude; iparraldekoa (gallurera eta sassariera), toskaneraren eraginez italiaretik hurbilena; erdialdekoa (logudorera) eta hegoaldekoa (campinadera): Milioi bat hiztun izanik ere ez du ofizialtasunik erdietsi. Italiera dute sardiniarrek hizkuntza ofizial bakarra.

Hainbertze herrik eraso izanak eragin desberdinak ezarri dizkio sardinierari nahiz Sardiniako eskualdeei. Katalanera dugu kasurik bitxienetarik, doike. Italieratze etengabeak orain arteko berezitasunak oro desagerrarazteko arriskua dakar, zinezko arriskua lehen katalanerak zuen eremuko zatirik haundiena galduta baitago. Halarik ere aragoitarren hizkuntza katalanera zela jakinda arestian aipaturiko tarte horretan, hots, 1326tik 1714ra bitarte katalanerak garrantzi haundia izan zuen uhartean. Erasotzaileen hizkuntza ofiziala katalanera zen. Hirietan hagitz agudo zabaldu zen katalanera, Cagliarin batez ere (gogoan eduki Cagliari dela Sardiniako hiriburu nagusia). Ordura arteko hizkuntzak, sardinierak alegia, pisatarrek eramaniko italieraren auzotasun erasokorra nabaritu zuen. Aragoitarrekiko menpekotasunak iraun zuen lau mendeetan katalanera hirietako hizkuntza izan zen, eta sardiniera herrietakoa.

Gobernadorearen paper ofizialak katalaneraz egiten ziren. Ohar gaitezen Aragoik eta Gaztelak bat egin zutenean ere paper ofizialak katalaneraz egiten zirela. Felipe IIak berak 1565eko ekainaren 22an baimena eman zuen ordura arte italiera hutsean idatziriko Iglesias, Bosa eta Sassariko estatutoak katalaneraz egin zitezen. Bi erresuma haundi hauen batzeak katalaneraren baztertzea ekarriko zuen baina ez uste genezakeen bezain laister. 1643. urte arte katalanera nagusi zen paper ofizialetan. Urte horretatik aitzinerat gazteleraren nagusitasuna erabatekoa izanen zen. Hau, beti gertatzen den bezala, “literatura ofizialean” gertatzen zen, herriak, hegoaldean batik bat, sardinieraz landa katalaneraz ere baitzekien.

1738koak dira Saboiako etxearen aginduetara zeuden Quirra markesek beren menpekoei izkiriaturiko paperak katalaneraz zeuden. Jakintsuek diotenaren arabera katalanerak ez zuen berebizko garrantzirik ukan uharteko iparraldean. Macomer-en, uhartearen erdi-erdian, 1624. urte arte eliza agiritegiko paperak sardinieraz daude. Gero katalaneraz idazten zituzten eta ondotik espainieraz. Espainieraren garrantzia haundia izan zen XIX. mende arte. Elizako sermoiak-eta espainieraz egiten ziren. 1764. urte arte, hots Turingo gobernuak eskoletako hizkuntza bakarra italiera izan zedin agindu zuen arte, hezkuntza eta justizia alorretan espainiera izan zen hizkuntza ofiziala. Komentuetan XIX. mendean ere espainiera adi zitekeen. Kontutan har dezagun Macomerren italieraz dagoen lehen agiria 1791. urtekoa dela. Aunitz agertuko dira espainieraz ere 1824. urte arte, jagoitik italiera hutsean. Uharterditik uharterat joandakoen eragina bi puska nagusitan banatu zen, iparraldea espainieraren aldea zen (nolabait erraiteko) eta hegoaldea katalanerarena.

Gaur egun katalaneraren gotorleku bakarra den Algheron ez omen zen hizkuntza honen barreiatze gunea izan. Hizkuntza mapak aztertzera (azter bitzate hizkuntzalariek, guk har ditzagun haien emaitzak) katalanerakadak eta katalanera bera Cagliari eta Campidamotik

hedatu ziren. Jakina, espainiar boterea gal zitekeen bezainbatean italieraren eragina haundituz (haundiagotuz) joan zen. Lehen katalaneraz eta espainieraz erraiten ziren eleak italieraneraren bidez trukatuko dira.

Ogibideei gagozkielarik jakin dezagun sardiniarren itsasoaren aurkako joera izugarria izan dela. Sardinia osoan arront tipia da arrantzaz bizi direnen kopurua, osotara bi mila bortzehun biztanle. Arrain eta itsaski gehienen izenak katalaneraz erabiltzeak ez gintuzke harritu beharko. Gaur egun, halarik ere, ez sardinierak ez katalanerak ere ez dute neholako ofizialtasunik Sardinia ederrean. Italierak du soil-soilik izaera hori. Algheron katalaneraren aldeko joea tinkoa dute, Kataluniako hizkuntzalari nahiz unibertsitateekin harremanetan daude. Erasotzaileen hizkuntza izan zen beitere sardinieraren kalterako. Gaur egun, dena den, katalanerak ez du galtzeko arriskuan dagoen sardiniera erasotzen. Joera ez da harat eraman zuten erasotzaileena bezalakoa. Orain ez dute bertako hizkuntza bazterrera uzten. Desagertu nahi ez badu sardinierak bere ofizialtasuna erdietsi beharko du auzo duen italierak irents ez dezan.

Azkenik, azpimarratzea katalaneraren biziraupen sena. Bere herritik orain dela zazpi mende bereizirik ere, gogotik eusten diote beren hizkuntzari, amarengandik milaka kilometrotan dauden arren. Tuteran (edo Buñuelen, edo Balmasedan, edo…) gure hizkuntza erdi lotsatuta aldarrikatu eta erabili nekez egiten dugunok katalaneradunengantik ikasi beharko genuke eta beraien jokabidea geure egin. Donostian Donosti, gorostian gorosti, Lleidan katalaneraz eta Sardinian ere. Halaxe egiten dute katalaneradunek. Noizko halako jokaera bat, euskararen alde jakina, Gasteizko udal batzarren nagusietan, edo eta Ortuellakoetan, edo eta Funesen, edo Donostian, edo…?